

Ikastetxe pribatuetako gastua %0,8 gehitu zen 2012-2015 aldian Euskal AEn

Zentro pribatuen diru-sarreraren %62 laguntza publikoak dira


Euskal AEko irakaskuntza pribatuaren datuak: 453 zentro, 210.000 ikasle pasatxo; 1.052 milioiko gastua 2015ean, 2012an baino %0,8 gehiago.

2015eko ekitaldian gastu arrunta (1.016 milioi, %+1,3 azken hiru urtekoan) guztizkoaren %96,5 izan zen eta batez ere (%74) langile-gastuetan joan zen. Inbertsioa, 36,5 milioi (%-11,5), aurreko aldian baino jaitsiera txikiagoa.

Gastu arruntaren barruan: irakaskuntzarenean %+3,8; zerbitzu osagarrienean %+15. Zentro askok zerbitzu berriak eskaintzen ditu (esaterako, ikasle zaintza eskola ordutegitik kanpo) eta horrek ekarri du zerbitzu osagarrien (jantokia eta garraioa nagusiki) gastuaren gehikuntza.

Unibertsitate-aurreko mailetak zentroetan kontzentratu zen guztizko gastuaren gehiena, %87; goi-mailako zentroetan %11 eta %2 arte-irakaskuntzetan.

1. grafikoa: Euskal AEko zentro pribatuetako irakaskuntza gastuaren bilakaera (milaka euro)



Iturria: Eustat. Irakaskuntza pribatuaren gastuaren eta finantzaketaren estatistika

Ikasleko batez besteko irakaskuntza gastuan %-1,6 eta unitatekoan %+3,6

2012-2015 ikasleko irakaskuntza gastuan %-1,6 dugu, aurreko aldian baino jaitsiera txikiagoa. 2015ean unitateko gastuan %+3,6, positiboan berriz eta 2009koaren gainetik.

Eskola-unitate edo taldeko irakaskuntza(1) -gastuak 2015ean 71.143 eta 85.648 euro izan ziren Haur-hezkuntzan eta Lehen Mailan. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH) 103.250€; 100.168€ Lan Hezkuntzan (LH) eta 130.500€ Batxilergoan. Helduen Irakaskuntzan (HI) unitateko gastua 56.683€.

Ikasleko irakaskuntza-gastuak: Haur hezkuntzan 3.781€; Lehen Hezkuntzan 3.985€; 4.965€ Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan; 5.091€ Batxilergoan; 5.026€ Lan Hezkuntzan. Unibertsitatean 6.320€ ikasleko eta Arte irakaskuntzetan 1.473€.

Ikastetxe pribatuen **guztizko sarrerak** 1.084 milioi: sarrera arruntak %99 eta kapitalenak %1. Sarrera arrunten iturri nagusia diru-laguntza publikoak dira, %62. Ondoren kuotak (%34) eta haien barruan irakaskuntzarenak (%22) eta zerbitzu osagarrienak (%9,9).

Kuotengatiko sarreraren %65,8 irakaskuntzakoak; garraiokoak %5,9, jantokikoak %19 eta jarduera osagarrietakoak familien ordainketen %5,2; gainerakoa beste zerbitzuen kuotak.

1. taula: Gastu osoa eta irakaskuntzako gastua, ikasleka eta unitateka, 2001-2015 aldian

	2001	2003	2005	2007	2009	2012	2015	Δ 2015/2012
Guztizko gastua (mila €)	650.992	706.695	798.624	889.011	1.062.383	1.043.941	1.052.497	0,82
Ikasleko irakaskuntza-gastua (€)	2.764	3.143	3.539	3.933	4.443	4.345	4.277	-1,57
Gelako irakaskuntza-gastua (€)	62.565	66.708	71.097	79.425	89.479	86.866	89.966	3,57

Iturria: Eustat. Irakaskuntza pribatuaren gastuaren eta finantzaketaren estatistika

Oharra: Estatistikako Institutu Nazionalarekin (INE) batera egin da eragiketa 2015ean.

(1) Irakaskuntza kostuetan dago irakasle eta ez-irakasleena, zentroarekin kontratu-erlaziorik izan ez eta ordaiketarik jasotzen ez dutenen gastuaren zenbatespena

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62